

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 413.000 euro bideratuko du egoera sozio-ekonomiko ahulenean dauden sare kontzertatuko ikasleen arretarako

Zentroek laguntzak asteazken honetatik aurrera eskatu ahal izango dituzte material, jantoki eta beste jarduera batzuen gastuetarako

Martes, 12 de marzo de 2013

Nafarroako Gobernuak 2013-2014 ikasturte honetan 413.000 euro bideratuko du guztira, egoera sozio-ekonomiko ahulenean dauden ikasleei arreta emateko, eta kontzertatutako ikastetxeetan nahiz baimendutako erakundeetan eskolatuta daudenak Foru Komunitatean egokitutako curriculumeko programak emate aldera.

Zentro horiek 20 egun naturaleko epea izango dute, asteazken honetatik, martxoak 13, kontaktzen hasita, dagozkien laguntzak eskatzeko. Laguntza horien xedea da egoera horretan dauden ikasleen jantoki, eskola-material eta jarduera osagarri nahiz prestakuntzako jardueren gastuak konpentsatzea.

Astearte honetako, martxoak 12, Nafarroako Aldizkari Ofizialaren (NAO) 49. zenbakian argitaratutako [deialdiak](#) jasotzen duenez, 90.000 euro arte emango da ekipamendu pertsonalerako, eskola-irteerarako eta beste ekintza osagarriarako, gehienez ere 150 euro emanik Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle bakoitzari; 300.000 euro arte jantokiko zerbitzurako, gehienez ere 400 euro emanik ikasturteko eta ikasleko Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan; eta 23.000 euro arte ikasle immigranteen edo egoera ahulenean dauden ikasleen % 25 baino gehiago eskolatzen duten zentroetarako, eta hura ikasle horiei arreta emateak sortzen duen funtzionamenduko gastuak ordaintzeko erabiliko da.

Eskaerak, ekipamendu eta jantokiko laguntzei dagozkienak barne, aurkeztu beharko dira zentro eta erakundeen bidez, eta haiek, aldi berean, udaleko gizarte-zerbitzuei ikasle eskatzailearen familien behar ekonomikoari buruzko txostenak eskatuko dizkiete.

Diru-laguntzaren helburua hezkuntza-sistemaren jarduera sendotzea da egoera sozio-ekonomiko ahulenean dauden ikasleei dagokienez, hala, "faktore sozial, ekonomiko, geografiko, etniko edo beste maila bateko faktoreetatik sortutako desberdintasunak ekidin daitezzen", [Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoaren](#) 80 eta 81 artikuluekin bat etorritz.